De estos datos se deduce un incremento del número de personas que conocen la utilidad de Internet, tienen información suficiente e interés en el tema, aunque todavía queda un margen de población ajeno a este mundo de la informática y las nuevas comunicaciones. La tasa de aprovechamiento –proporción de usuarios sobre los que tienen acceso a Internet–, parece no haber variado en los últimos cuatro años estudiados, fijándose en torno al 68-69%.

Si se tuviera que definir un perfil del internauta de la C.A de Euskadi sería el de un usuario entre 15 y 24 años, varón, estudiante y que reside en una familia con hijos.

Entre aquéllos que no se conectan a Internet, un alto porcentaje son personas mayores de 64 años, miembros de familias sin hijos o sin núcleo familiar, además de personas que, laboralmente, permanecen inactivas o paradas y, en mayor medida, mujeres.

El colectivo formado por las personas que no son usuarias aún teniendo acceso a Internet, se caracteriza por tener entre 45-54 años, miembros de familias con hijos, no son necesariamente inactivos, tienen estudios primarios y hay más mujeres que hombres.

Población de 15 y más años, según el acceso, el uso de Internet y características básicas. C.A. de Euskadi. 2004. Media anual. (%)


Datu horietatik ondorioztatzen da hazi egin dela pertsona kopurua Interneteko erabilgarritasuna ezagutu eta gai horren inguruan behar adina informazio eta interes dutenena. Hala ere, biztanleriaren zati bat informatikaren eta komunikazio berrien mundutik kanpo dago. Badirudi aprobetxamendu-tasa –erabiltzaileen proportzioa Interneten sartzeko aukera dutenen artean– ez dela aldatu aztertutako azken lau urteetan, eta %68-69 inguruan finkatu da.

EAEko erabiltzailearen profila honakoa da: 15-24 urte bitarteko gizonezkoa, ikaslea eta seme-alabadun familian bizi dena.

Internetera konektatzen ez direnen artean, asko dira 64 urtez gorakoak, seme-alabarik gabeko familietako kideak edo familiarik gabekoak, bai eta ez-aktiboak eta langabezia dauedunak ere, eta, emakumeak gehiago dira.

Interneteko sarbidea izanagatik erabiltzen ez duten pertsonen taldeak ezaugarri hauek ditu: 45-54 urte bitarte; seme-alabadun familiako kide; ez dira, nahitaez, ez-aktiboak; lehen mailako ikasketak dituzte eta gizonezkoak baino gehiago dira emakumezkoak.

15 urteko edo gehiagoko biztanleak, Interneteko sarbidea izateko aukeraren, erabileraren eta oinarrizko ezaugarrien arabera. Euskal AE. 2004 Urteko batez bestekoa. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

En el proceso de armonización de indicadores con los propuestos por Eurostat en el año 2003, en la ESIF se modificó la pregunta relativa a la frecuencia de acceso. A continuación se presenta la cuestión tal y como se planteó en el año 2002 –y anteriores– y en el año 2003 y posteriores.

Año 2002 y anteriores:

¿Con qué frecuencia suele acceder a Internet?

- a) Diariamente.
- b) Varias veces a la semana.
- c) Varias veces al mes.
- d) Con menor frecuencia.
- e) Nunca.

Año 2003 y posteriores:

¿Con qué frecuencia ha usado Internet en los últimos tres meses?

- a) Diariamente, al menos 5 días por semana.
- b) Todas las semanas, pero no diariamente.
- c) Al menos una vez al mes, pero no todas las semanas.
- d) No todos los meses.

A la vista de los resultados obtenidos, se considera oportuno presentar una evolución trimestral de estos años. Teniendo en cuenta la diferente formulación de la pregunta, a lo largo de estos años, en la población que tiene acceso a Internet se observa una estabilización de dos grupos: los usuarios que pudiendo no acceden a la red –algo más del 30%– y los que se conectan a diario –sobre el 34%–, en el cuarto trimestre de 2004. Además, hay una disminución de los que se conectan semanalmente y de los que acceden a la red al menos una vez al mes.

Adierazleak Eurostatek proposatuekin bateratzeko prozesuan, 2003an Internetera sartzeko maiztasunari buruzko galdera aldatu zen IGIFen. Hona hemen nola egin zen galdera 2002an -eta aurrekoetan- eta 2003an eta ondorengoetan.

2002an eta aurrekoetan:

Zein maiztasunez sartzzen zara Internetera?

- a) Egunero.
- b) Astean hainbat aldiz.
- c) Hilabetean hainbat aldiz.
- d) Maiztasun gutxiagoz.
- e) Inoiz ez.

2003an eta ondorengoetan:

Internet zein maiztasunez erabili duzu azken hiru hilabetean?

- a) Egunero, gutxienez astean 5 egunetan.
- b) Astero, baina ez egunero.
- c) Gutxienez hilean behin, baina ez astero.
- d) Hil guztietan ez.

Lortu diren emaitzak ikusita, uste dugu komeni dela urte horietan hiruhilekoz hiruhileko zer bilakaera izan den erakustea. Kontua izanik galdera beste era batera egin dela urte horietan, Interneteko sarbidea duten biztanleen artean bi talde egonkoritu direla antzematen da: sarera sartzeko aukera izanda ere sartzzen ez direnak –%30 baino pixka bat gehiago– eta egunero konektatzen direnak –%34 inguru–, 2004ko laugarren hiruhilekoan. Gainera, astero konektatzen direnen kopuruak behera egin du, eta sarera gutxienez hilean behin sartzzen direnenak ere bai.


Evolución de la población de 15 y más años con acceso a Internet, por la frecuencia de conexión según trimestre.

C.A. de Euskadi. (%)

11.

Interneteko sarbidea duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleen bilakaera, konektatzen diren maiztasunaren arabera, hiruhilekoka.

Euskal AE. (%)



4.2. Evolución del número de usuarios y sus características

Se considera usuario a toda persona que ha accedido alguna vez a Internet en los tres últimos meses. Esta definición, como ya se ha dicho, se adoptó en 2003 con el fin de armonizarla a la mantenida por Eurostat. En los datos anteriores a 2003 se mantiene la definición antigua: cualquier persona que, para unas determinadas edades, afirmaban haberse conectado alguna vez a Internet.


Evolución de la población de 15 y más años usuaria de Internet, según trimestre.
C.A. de Euskadi. (%)

4.2. Erabiltzaile kopuruaren bilakaera eta haien ezaugarriak

Erabiltzailetzat hartzen da azken hiru hilabetean behin edo behin Internetera sartu den pertsona oro. Esan bezala, definizio hori 2003an onartu zen, Eurostatek zuenarekin bateratzeko. 2003a baino lehenagoko datuetarako definizio zaharra erabili da: adin jakin batzuetan Internetera noizbait konektatu zela baieztatzen zuen edozein pertsona.

15 urteko edo gehiagoko Internet-erabiltzaileen bilakaera, hiruhilekoaren arabera.
Euskal AE. (%)

12.



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

El 35,1% de la población de la C.A. de Euskadi, de media, se conectó a Internet durante el año 2004. El análisis de la evolución trimestral de los cinco últimos años (contando el II y IV trimestre) muestra cómo el porcentaje de personas que acceden a la red presenta un ritmo fuertemente ascendente hasta el año 2001, para estabilizarse a lo largo del año 2002, incluso apreciándose una ligera caída en el IV trimestre del año. En el 2003 se retoma el ritmo ascendente anterior a los datos del 2002, aunque con un ritmo menor y, a partir del IV trimestre del año 2002, el crecimiento continúa, llegando en el IV trimestre de 2004 al 35,7% de la población.

2004an, batez beste, EAeko biztanleriaren %35,1 konektatu zen Internetera. Azken bost urteetako hiruhileko bilakaeraren analisiak (II. eta IV. hiruhilekoak kontuan izanda) erakusten du 2001era arte sarean sartzen zirenen kopuruak gora egin zuela, 2002an orekatu egin zen eta urteko IV. hiruhilekoan beherakada txiki bat ere izan zen. 2003an berriz ere 2002az aurreko datuen goranzko joerari ekin zitzaion, baina ez hain erritmo bizian eta 2002ko IV. hiruhilekotik aurrera hazkundeak jarraitu egin du eta 2004ko IV. hiruhilekoan biztanleriaren %35,7ra iritsi da.

Antes de comenzar con la lectura de los datos del EGM, conviene recordar que su definición de usuarios alcanza a los que se han conectado en el último mes y añade el grupo de 14 años. Esto explica las diferentes tasas con los datos ofrecidos por Eustat. No obstante, dado que resulta ser una fuente exclusiva, en cuanto a ofrecer series de datos desde el año 2000 por Comunidades Autónomas, se ha considerado pertinente su presentación.

Hedabideen inkesta orokorraren (EGM) datuak irakurri aurretik, kontuan izan behar dugu erabiltzailearen definizioan azken hila-betean konektatu direnak eta 14 urtekoen taldea sartzen dituela. Horregatik, Eustatek eskaintako datuen bestelako tasak ageri dira. Dena dela, iturri bakarra denez 2000. urtetik aurrera-ko datu-serieak autonomia-erkidegoka ematen, haren berri ematea egokitzat jo dugu.

3.TAULA
TABLA 3

INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-FAMILIAK
ENCUESTA SOBRE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACION-FAMILIAS

14 URTEKO ETA GEHIAGOKO INTERNET-ERABILTZAILAEN BILAKAERA, URTEAREN ETA AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA. URTEKO BATEZ BESTEKOA (%)¹

EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN DE 14 Y MÁS AÑOS USUARIA DE INTERNET EN EL ÚLTIMO MES, POR AÑO Y C. AUTÓNOMA. MEDIAS ANUALES (%)¹

	2000	2001	2002	2003	2004
Madril / Madrid	16,3	23,4	27,0	35,2	40,3
Euskal AE / C.A. de Euskadi	17,0	25,1	27,1	29,1	39,4
Katalunia / Cataluña	18,6	26,6	27,1	30,8	36,5
Balearrak / Baleares	13,7	21,9	24,7	28,5	36,3
Kantabria / Cantabria	9,3	19,1	23,0	25,5	35,3
Nafarroa / Navarra	13,8	17,3	20,9	25,5	34,4
Aragoi / Aragón	12,2	18,1	20,6	28,8	33,9
Espainia / España	15,8	21,2	22,6	27,8	32,9
Kanariak / Canarias	11,7	19,1	24,6	26,1	30,5
Andaluzia / Andalucía	10,1	18,2	20,3	25,6	30,4
Asturias	10,7	22,7	20,5	23,7	30,1
Murtzia / Murcia	8,0	18,5	18,9	23,6	29,9
Valentzia / Comunidad Valenciana	12,5	21,6	20,8	22,1	28,9
Galizia / Galicia	8,2	14,6	18,9	23,6	27,2
Errioxa / Rioja (La)	17,3	24,3	23,3	17,5	26,8
Gaztela eta Leon / Castilla y León	8,8	16,0	20,0	23,5	26,0
Extremadura	6,9	14,0	15,6	22,0	26,0
Gaztela-Mantxa / Castilla-La Mancha	8,3	12,3	14,6	19,1	23,8

¹AIMC. Audiencia de Internet en el EGM. 1º Ola 2005. www.aimc.es.

En 2004, Madrid y la C.A. de Euskadi son las dos comunidades con mayor tasa de usuarios de Internet. Navarra aparece por encima de la media estatal. En la C.A. de Euskadi, según esta fuente, el incremento ha sido de 10,3 puntos porcentuales entre 2003 y 2004. Para el año 2004, la C.A. de Euskadi ofrece una tasa de usuarios del 39,4% situándose la media estatal en el 32,9%.

A partir de 2003, Madrid ha sido la Comunidad Autónoma que ha ocupado el primer puesto en el ranking de usuarios, aventajando al resto considerablemente. En 2004 se sitúa en segundo lugar la C. A. de Euskadi, con una diferencia de 0,9 puntos porcentuales y, en tercer lugar, Cataluña, a casi 4 puntos porcentuales.

En cuando a la frecuencia de acceso de los usuarios de nuestra comunidad, el 44,2% se conectan diariamente y el 43,2% se conecta todas las semanas. Comparando estas cifras con el resto de las comunidades y con la media española, se observan diferencias: los usuarios vascos se conectan diariamente con

2004an Madril eta EAE izan ziren Interneteko erabiltzaile-kopuru handiena zuten bi erkidegoak. Nafarroa Estatuko batez bestekoaren gainetik dago. EAEn, iturri horren arabera, 10,3 ehuneko-puntuko hazkundea izan zen 2003-2004 artean. 2004ari dagokionez, EAeko erabiltzaile-tasa %39,4koa izan zen, eta Estatukoa %32,9koa.

2003. urteaz geroztik Madril izan da lehen autonomia erkidegoa erabiltzaile-tasetan eta besteei alde handia kentzen zien. 2004an EAE zegoen bigarren postuan, 0,9 ehuneko-puntuko aldearekin eta, hirugarren tokian, Katalunia, ia 4 ehuneko-puntura.

Gure erkidegoko erabiltzaileak konektatzen diren maiztasunari dagokionez, %44,2 egunero konektatzen dira eta %43,2 astero. Zifra horiek beste erkidegoetakoekin eta Espainiako batez bestekoarekin alderatuz gero, aldeak daude: euskal erabiltzaileak egunero Espainiako batez bestekoa baino gutxiago konektatzen

una frecuencia menor a la media española y alejados en más de 8 puntos de la comunidad de mayor tasa de usuarios de Internet: Madrid. Sin embargo, están por encima de la media y del porcentaje de esta última comunidad en cuanto a usuarios de frecuencia semanal.

dira eta Interneteko erabiltzaile gehien dituen erkidegoarekiko (Madril) 8 puntu baino gehiagoko aldea du. Baina batez bestekoaren gainetik dago eta Madrilen astero konektatzen diren erabiltzaileen ehunekoaren gainetik.

4. TAULA
TABLA 4

INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-FAMILIAK
ENCUESTA SOBRE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACION-FAMILIAS

15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK, INTERNETERA SARTZEN DIREN MAIZTASUNAREN ARABERA. 2004KO 2. HIRUHILEKOA. (%)
POBLACIÓN DE 15 Y MÁS AÑOS POR LA FRECUENCIA DE ACCESO A INTERNET, POR C. AUTÓNOMA. 2º TRIMESTRE 2004 (%)

	Egunero, gutxienez astean 5 egunetan Diariamente, al menos 5 días por semana	Aste guztietan, baina ez egunero Todas las semanas, pero no diariamente	Gutxienez, hilean behin, baina ez astero Al menos 1 vez al mes, pero no todas las sem.	Hil guztietan ez No todos los meses
Madril / Madrid	52,2	29,2	13,7	4,9
Katalunia / Cataluña	50,3	31,9	11,9	5,6
Kantabria / Cantabria	48,7	28,6	12,8	9,9
Valentzia / Comunidad Valenciana	46,7	32,1	12,6	8,6
Balearrak / Baleares	45,6	25,8	20,1	8,5
Espainia / España	45,2	32,5	15,4	6,8
Asturias	44,9	31,1	15,6	8,4
Euskal AE / C.A. de Euskadi	44,2	43,2	10,9	1,7
Kanariak / Canarias	42,8	31,8	20,6	4,8
Nafarroa / Navarra	42,5	34,4	14,6	8,2
Gaztela-Mantxa / Castilla-La Mancha	42,5	33,8	17,7	5,3
Gaztela eta Leon / Castilla y León	41,7	34,7	15,1	8,1
Andaluzia / Andalucía	39,7	35,4	16,8	8,0
Aragoi / Aragón	38,8	36,0	18,4	6,9
Galizia / Galicia	38,5	33,6	18,2	9,8
Murtzia / Murcia	36,6	35,4	20,6	7,4
Errioxa / Rioja (La)	35,9	40,9	14,7	8,4
Extremadura	32,3	36,3	21,5	9,9

Iturria / Fuente: IGIF / ESIF, Eustat. TIC-H, INE.

Entre los países europeos para los que Eurostat facilita información, se puede apreciar la diferencia existente entre tres grandes grupos. Por un lado, los países nórdicos presentan elevadas tasas en cuanto a usuarios de Internet: Islandia –el 79% de los varones y 4 puntos menos las mujeres–, Suecia –el 78% de los varones y 5 puntos menos las mujeres–, Noruega –73% y hasta 10 puntos menos las mujeres– y Dinamarca –73% en el primer caso y 7 puntos de brecha por género–.

En segundo lugar, se podrían diferenciar los países que se sitúan en torno a la media europea: Reino Unido –55% de varones y 12 puntos menos las mujeres– y la C.A. de Euskadi –40% en varones y 5 de brecha por género–. La brecha con la media de la Europa de los 15 sería de 6 puntos porcentuales para varones y de 1 en el caso de las mujeres, en el caso de la C. A. de Euskadi.

Un tercer grupo, lo formarían los países que están muy por debajo de la media europea –46% en varones y 36% en mujeres–. En esta subdivisión se incluirían Italia –31% de varones y 11 puntos menos en mujeres–, Irlanda –28% y 2 puntos de brecha por género–, siendo el país que menor diferencia por sexo tiene entre sus internautas, y Grecia –21% en varones y 14% en mujeres–.

Eurostatek informazioa ematen duen Europako herrialdeetan hiru talderen artean alde handiak daude. Batetik, Internet-erabiltzaileen tasak oso handiak dira: Islandia –gizonezkoen %79 eta 4 puntu gutxiago emakumezkoak–, Suedia –gizonezkoen %78 eta 5 puntu gutxiago emakumezkoak–, Norvegia –%73 eta 10 puntu gutxiago emakumezkoak– eta Danimarka –%73 lehenbiziko kasuan eta 7 puntuko aldea generoaren arabera–.


Bigarren tokian Europako batez bestekoaren inguruko herrialdeak daude: Erresuma Batua –gizonezkoen %55 eta 12 puntu gutxiago emakumeak– eta EAE –gizonezkoen %40 eta 5 puntuko aldea generoen artean–. 15en Europarekin dagoen aldea gizonezkoen kasuan 6 ehuneko-puntuko da eta ehuneko-puntu 1 emakumezkoen kasuan, EAEn.

Hirugarren taldean daude Europako batez bestekoaren (gizonezkoen %46 eta emakumezkoen %36) oso azpiko herrialdeak: Italia –gizonezkoen %31 eta 11 puntu gutxiago emakumeak–, Irlanda –%28 eta 2 puntuko aldea generoen artean–, sexuen arabera aldierik txikiena duena eta Grezia –gizonezkoen %21 eta emakumezkoen %14–.

Población de 16 a 74 años usuaria de Internet, por sexo. Países europeos. 2º Trimestre 2004. (%)

Internet erabiltzen duten biztanleak, 16 eta 74 urte bitartean, sexuaren arabera. Europako herrialdeak. 2004ko 2. hiruhilekoa. (%)

13.



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat. Eurostat.

Por edad, el grupo donde la tasa es mayor, es en el de 16 a 24 años en todos los países analizados por Eurostat y en la propia C.A. de Euskadi. Se produce un salto importante de este grupo al siguiente.

Asimismo, de 16 a 24 años, Suecia presenta una tasa de 97%, en tanto que la C.A. de Euskadi se sitúa, con 76%, a 21 puntos porcentuales. La C.A. de Euskadi presenta una tasa cercana, en este grupo de edad, a la de España y la Europa de los 25. En el grupo de 25 a 34 años, se agrandan las diferencias, con el 93% de Suecia por el 54% de la C.A. de Euskadi (39 puntos). Sucede lo mismo en el grupo de 35 a 44 años, en el que los internautas vascos, con un 42%, están a 47 puntos del citado país, que lidera todos los grupos de edad.

Resulta interesante subrayar las altas tasas de los países nórdicos en las edades de mayores de 55 años. Han llegado antes a Internet y resulta probable que dispongan de contenidos para ellos; además, hay que tener en cuenta su superior nivel de formación.

Adinaren arabera, tasarik handiena 16-24 urte bitartekoen taldeari dagokio, Eurostatek aztertutako herrialde guztietan zein EAEn. Talde horretatik hurrengora jauzi handia dago.

Halaber, 16-24 urte bitartean Suediak %97ko tasa du, eta EAEk, ordea, %76koa, 21 ehuneko-puntura. EAEk adin-talde horretan Espainiakoaren eta 25eko Europaren antzeko tasa du. Aldeak handiagoak dira 25-34 urte bitartekoen taldean, Suediak %93 baitu eta EAEk %54 (39 puntu). Gauza bera gertatzen da 35-44 urte bitarteko taldean, EAEko internautak (%42) Suediakoengandik 47 puntura baitaude. Suediak du, hain zuzen, lehen postua adin-talde guztietan.

Interesgarria da ikustea Ipar Europako herrialdeetan 55 urte baino gehiagokoek tasa altuak dituztela. Lehenago izan dute Internet erabiltzeko aukera eta daitekeena da berriazko edukiak izatea; gainera, kontuan izan behar da hezkuntza-maila altuagoa dutela.

INTERNET ERABILTZEN DUTEN BIZTANLEAK, 16 ETA 74 URTE BITARTEAN, ADINAREN ARABERA. EUROPAKO HERRIALDEAK. 2004KO 2. HIRUHILEKOA. (%)

POBLACIÓN DE 16 A 74 AÑOS USUARIA DE INTERNET, POR EDAD. PAÍSES EUROPEOS. 2º TRIMESTRE DE 2004. (%)

	16-24 urte/años	25-34 urte/años	35-44 urte/años	45-54 urte/años	55-64 urte/años	65-74 urte/años
Suedia / Suecia	97	93	89	82	69	49
Islandia	97	93	89	80	62	33
Norvegia / Noruega	94	90	85	78	54	22
Alemania	92	85	74	61	36	17
Danimarka / Dinamarca	92	86	86	78	65	30
Euskal AE / C.A. de Euskadi	76	54	42	31	12	3
Erresuma Batua / Reino Unido	83	80	69	63	42	23
Europa 25 / Europa de los 25	75	62	54	43	27	11
Spainia / España	75	58	44	30	14	3
Portugal	64	43	30	20	8	2
Italia	58	46	37	28	12	3
Grezia / Grecia	41	29	25	12	3	1
Irlanda	44	43	40	29	15	6

Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat. Eurostat.

4.2.1. Frecuencia de acceso

Las características básicas de los usuarios proceden del análisis de las conexiones: cuándo, cómo, desde qué lugar, durante cuánto tiempo, así como con qué fin se conectan.

En la gráfica 14, que se presenta a continuación, se puede observar que entre los que se conectan diariamente superan la media los residentes de Bizkaia, los varones, de edades entre 25 y 34 años, por un lado, y 45 y 54 años, por otro, de nivel de instrucción superior y los ocupados.

Entre los que se conectan semanalmente, superan la media los residentes en Álava y Gipuzkoa, las mujeres, los internautas de 15 a 24 años, los de 35 a 44 años y mayores de 55 años, los que poseen estudios primarios y secundarios y los estudiantes, inactivos y parados.

Entre los que se conectan alguna vez al mes, superan la media, por territorio, los alaveses y vizcaínos, las mujeres, los que tienen de 15 a 24 años y de 35 a 54 años, los de estudios primarios y secundarios y los inactivos y parados.

4.2.1. Sarbidearen maiztasuna

Erabiltzaileen oinarrizko ezaugarriak konexioen analisisian oinarritzen dira: noiz konektatzen diren, nola, nondik, zenbat denboraz eta zertarako.

Hurrengo grafikoan, 14.ean, ikus daiteke egunero konektatzen direnen artean honako hauek gainditzen dutela batez bestekoa: Bizkaian bizi direnek; gizonezkoek; 25-34 urte bitartekoek, bate-tik, eta, 45-54 urte bitartekoek, bestetik; goi-mailako ikasketak dituztenek eta landunek.


Astero konektatzen direnen artean, honako hauek gainditzen dute batez bestekoa: Araban eta Gipuzkoan bizi direnek; emakumeek; 15-24 urte bitarteko erabiltzaileek, 35-44 urte bitartekoek eta 55 urtez gorakoek, lehen eta bigarren mailako ikasketak dituztenek eta ikasleek, ez-aktiboek eta langabetuek.

Noiz edo noiz konektatzen direnen artean, batez bestekoaren gaintik daude: Araba eta Bizkaikoak; emakumeak; 15-24 urte artekoak eta 35-54 urte artekoak; lehen eta bigarren mailako ikasketak dituztenak eta ez-aktiboak eta langabetuak.

Población de 15 y más años usuaria de Internet, por frecuencia de acceso. C.A. de Euskadi. 2004. Media anual. (%)

14.

15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak, Interneteko sarreraren maiztasunaren arabera. Euskal AE. 2004. Urteko batez bestekoa. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

Lugares preferentes de conexión

Sin duda, el lugar de acceso más utilizado viene a ser el domicilio familiar, siendo también el que mayor dinamismo presenta en la C.A. de Euskadi en el período de estudio.

En cualquier caso, se mantienen tendencias de años anteriores. Mayoritariamente, es el hogar familiar desde donde se accede a Internet (72,5%), consolidándose como lugar habitual de conexión con un incremento respecto al año 2003 de casi 4 puntos porcentuales. Estas tendencias se justifican por el incremento del número de ordenadores, por el de su renovación y, consecuentemente, por el mayor nivel de acceso desde los hogares, hacia los que parece desplazarse el uso de Internet, en detrimento de los lugares de donde partió Internet: el centro de estudio y el de trabajo.


Evolución de la población de 15 y más años usuaria de Internet, por lugar de acceso. C.A. de Euskadi. Media anual. (%)

Konektatzeko gehien erabiltzen diren tokiak

Ezbairik gabe, familiaren etxea da Internetera sartzeko gehien erabiltzen den tokia. Gainera, aztertu den aldian EAEn dinamismorik handiena izan duen tokia da.

Dena dela, aurreko urteetako joerei eutsi zaie. Batez ere familiarako etxetik sartzen da Internetera (%72,5), konektatzeko ohiko toki bezala finkatu da eta 2003 urtearen aldean ia 4 ehuneko-puntu igo da. Joera horiek azaltzen dira ordenagailu kopurua gehitu delako, zaharrak ordeztu direlako eta, beraz, etxetik konektatzeko aukera areagotu egin da. Badirudi Interneten erabilera etxeetara lekualdatu dela, eta, ondorioz, Internet erabiltzen hasi zen tokietan murriztu egin da: ikastokietan eta lantokietan, hain zuzen.

15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak, konektatzeko erabiltzen duten tokiaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoa. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

El resto de ubicaciones aparecen con mucha menor frecuencia entre los usuarios de Internet. Estos datos llevan a concluir que a pesar de la proliferación de cibercentros, cybercafés, etc., el internauta vasco prefiere el ámbito privado para conectarse a Internet.

4.2.2. El fin principal de la conexión, días de mayor acceso y tiempo de conexión

Existe un uso de Internet que se desvincula cada vez más de fines académicos y laborales y constituye una fuente de juegos, de música y otros tipos de ocio, de información para viajar, para

Gainerako tokiak askoz ere maiztasun txikiagoarekin azaltzen dira Interneteko erabiltzaileen artean. Beraz, datu horien arabera, ziberzentroak, ziberkafetegiak... gehitu egin diren arren, EAeko internautak nahiago du eremu pribatua Internetera konektatzeko.

4.2.2. Konexioaren xede nagusia, sarbide gehieneko egunak eta konektaturik ematen den denbora

Bada Interneten erabilera bat, gero eta areago ikasketa- eta lan-helburuetatik bereizten dena: jokoetakoa, musikakoa eta beste aisia-mota batzuetakoa, bidaiatzeko informazioa biltzekoa,

estar al día con las noticias, para buscar empleo y también una nueva forma de comunicación personal para uso particular. En el año 2004, el 59,1% de los internautas se conectaron con fines personales, habiendo aumentado el porcentaje en 13,3 puntos porcentuales respecto al año anterior.

En cuanto a los fines profesionales, en el año 2004 el 32,4% de los que se conectaron lo hicieron con estos fines, habiéndose producido una disminución respecto al año anterior de 6 puntos porcentuales.

Por otro lado, cabe decir que la cifra de personas que acceden a Internet con fines académicos representa el 8,1% de los usuarios, produciéndose una disminución, respecto al año 2003, de 7,3 puntos.


Evolución de la población de 15 y más años usuaria de Internet, por el fin principal de la conexión.

C.A. de Euskadi. Media anual. (%)

16.

15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileen bilakaera, konexioaren xede nagusiaren arabera.

Euskal AE. Urteko batez bestekoa. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

En el año 2004, el 59,1% de los usuarios accede a Internet para fines personales, frente a usos vinculados con la vida profesional (32,4%). A lo largo de estos años estudiados, se observan variaciones respecto al fin principal de la conexión. Así, en el año 2000, el 43,5% de los que se conectaban lo hacían con fines personales y en el año 2004 son el 59,1% los que lo hacen con dicho interés. En cuanto a los fines profesionales, se produce una estabilización en torno al 30%.

No resulta ajeno al fin del acceso los propios días en que se conectan los usuarios; así, respecto a los días de mayor acceso a Internet, a lo largo de estos años se observa también un cambio en las costumbres. Si en el año 2000 en los días laborales se conectaban el 58,7% de los usuarios, en el 2004 lo hacen el 40,6%. A la respuesta de "Indistintamente" (laborales o

albisteak jasotzekoa, enplegua bilatzeko, eta, orobat, erabilera partikularreko komunikazio pertsonalak bideratzekoa. 2004an internauten %59,1 xede pertsonalengatik konektatu zen eta aurreko urtearen aldean 13,3 ehuneko-puntu igo zen ehunekoa.

Xede profesionalei dagokienez, 2004an konektatu ziren %32,4 xede horrekin konektatu ziren, eta aurreko urtearen aldean 6 ehuneko-puntuko beherakada egon zen.

Bestalde, esan behar da Internetera ikasketei loturiko xedeengatik sartzen direnak erabiltzaileen %8,1 direla, eta 2003aren aldean 7,3 puntuko beherakada egon da.

2004. urtean erabiltzaileen %59,1 helburu pertsonaletarako sartu ziren Interneten, laneko helburuetarako sartu zirenen %32,4ren aldean. Aztertutako urte hauetan, aldeak daude konektatzeko xede nagusian. 2000. urtean konektatzen ziren %43,5 helburu pertsonaletarako sartzen ziren eta 2004.ean %59,1 dira helburu horrekin sartzen direnak. Xede profesionalei dagokienez, %30 inguruan egonkortu dira.

Loturik daude Interneten sartzearen xedea eta erabiltzaileak konektatzen diren eguna. Hori dela eta, ohiturak aldatu egin dira azken urteetan erabiltzaileak Interneten gehien sartzen diren egunei dagokienez. 2000. urtean lanegunetan erabiltzaileen %58,7 konektatzen baziren, 2004an %40,6 konektatzen dira. Edozein egunetan (lanegunetan zein jaiegunetan) konektatzen


festivos), en el año 2000 contestaban el 33,9% y en el 2004, el 52,9%. Por último, parece que a través de estos años los que se conectan en festivos se mantienen en torno al 9%.

zirela zioten %33,9k 2000. urtean eta 2004an %52,9k. Azkenik, urte hauetan jaiegunetan konektatzen direnak %9 inguru dira.

Evolución de la población de 15 y más años usuaria de Internet, por los días de mayor acceso. C.A. de Euskadi. Media anual. (%)

17.

15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak, Interneten gehien sartzen diren egunen arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoa. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

En cuanto a la duración de la última conexión, en 2004, el 35,6% estuvo entre 30 minutos y 1 hora, el 33,9%, entre 15 y 30 minutos y únicamente el 4,1% estuvo 4 horas o más. Así, la duración de las conexiones continúa con la característica de la reducida duración señalada en las encuestas de años anteriores. Por sexo, las mujeres se conectan de 15 a 30 minutos y los hombres, de 30 minutos a 1 hora.

Azken konexioaren iraupenari dagokionez, 2004an %35,6 30 minutu eta ordubete bitartean egon ziren konektatuta, % 33,9 15-30 minutu eta %4,1 lau ordu edo gehiago. Ondorioz, konexioek laburrak izaten jarraitzen dute, aurreko urteetan bezala. Sexuaren arabera, emakumezkoak 15-30 minutu konektatzen dira eta gizonezkoak 30 minutu eta ordubete bitartean.

4.3. Uso de Internet

4.3. Interneten erabilera

4.3.1. Tipos de Webs y servicios utilizados

4.3.1. Erabiltzen diren web gune eta zerbitzu motak

El correo electrónico es el servicio utilizado con mayor frecuencia por los usuarios de Internet de la C.A. de Euskadi. En el otro extremo estaría el acceso al servidor de la empresa, con 0,9%, dentro de los usos investigados en la encuesta del año 2004.


EAEko Internet-erabiltzaileek gehien erabiltzen duten zerbitzua posta elektronikoa da. Beste muturrean enpresako zerbitzaria dago (%0,9), 2004ko inkestan aztertu ziren erabilerean artean.

El 68,1% utiliza Internet para acceder a páginas de medios de comunicación. La banca electrónica (40,3%), información sobre bienes y servicios (65,4%), reservas de turismo (57,2%), bibliotecas y documentación (62,2%), servicios de ocio (40,5%) e información de la Administración (54,4%), son otros de los objetivos demandados por los usuarios de Internet de la C.A. de Euskadi, según se refleja en los datos de la encuesta de 2004.

Erabiltzaileen %68,1ek hedabideen web guneetan sartzeko darabilte Internet. EAEko Internet-erabiltzaileek eskatzen dituzten beste batzuk, 2004ko inkestako datuetan islatzen denez, honako hauek dira: banca elektronikoa (%40,3), ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa (%65,4), turismoko erreserbak (%57,2), liburutegiak eta dokumentazioa (%62,2), aisiako zerbitzuak (%40,5) eta Administrazioen informazioa (%54,4).

Población de 15 y más años usuaria de Internet,
por los servicios más utilizados.
C.A. de Euskadi. 2004. Media anual. (%)

15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak,
zerbitzu erabiltzen araberako.
Euskal AE. 2004. Urteko batez bestekoa. (%)




Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

El 80,6% de los usuarios utiliza el correo electrónico, el 26,1% usa la transferencia de ficheros –FTP– y el 37,0% de los internautas participa en chats. Por sexos, encontramos que el 80,8% de las mujeres utilizan el correo electrónico, con una diferencia con respecto a los hombres de 0,4 puntos porcentuales, a favor de ellas. El 74,4% de los hombres visita medios de comunicación, con una diferencia respecto de las mujeres de 13,5 puntos porcentuales, a favor de ellos.

Erabiltzaileen %80,6k posta elektronikoa erabiltzen dute, %26,1ek fitxategi-transferentzia (FTP) erabiltzen dute eta %37,0k txatetan parte hartzen dute. Sexua kontuan izanik, emakumezkoen %80,8k posta elektronikoa erabiltzen dute, gizonekiko 0,4 ehuneko-puntu gehiago. Gizonezkoen %74,4 hedabideen web guneetan sartzen dira, emakumezkoak baino 13,5 ehuneko-puntu gehiagorekin.

Población de 15 y más años usuaria de Internet por tipos de Webs más visitadas.
C.A. de Euskadi. 2004. Media anual. (%)

15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak, bisitatzen dituzten webguneen arabera.
Euskal AE. 2004. Urteko batez bestekoa. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

Otros servicios utilizados son: la descarga de formularios oficiales (20,2%), educación reglada (12,8%), gestiones de búsqueda de empleo (13,8%), información sobre la salud (13,7%), matriculaciones y otras consultas académicas (13,1%).

Servicios de menor interés son los relativos a venta de bienes y servicios (5,4%), derechos del consumidor (4,8%) y envío de formularios cumplimentados (6,0%).

Hona hemen erabiltzen diren beste zerbitzu batzuk: formulario ofizialak deskargatzea (%20,2), araututako hezkuntza (%12,8), enplegua bilatzeko kudeaketak (%13,8), osasunari buruzko informazioa (%13,7), matrikulatzeak eta beste kontsulta akademiko batzuk (%13,1).

Interes gutxiagoko zerbitzuak dira ondasunak eta zerbitzuak saltzea (%5,4), kontsumitzailearen eskubideak (%4,8) eta betetako formularioak igortzea (%6,0).

La edad y el tipo de ocupación establecen una clara diferencia a la hora de elegir la forma de comunicación en la red. Así, los que más utilizan el correo electrónico son los que tienen entre 25 y 34 años, el 86,1%; los ocupados, con un 82,3%, frente a los estudiantes –81,0%– e inactivos y parados –69,8%–. Por el tipo de hogares, las personas que viven solas van a la cabeza, con un 83,4%.

Por sexo, se aprecia una notable diferencia en el acceso a los medios de comunicación; del total de usuarios varones, el 74,4% utiliza dichos servicios; mientras que de las mujeres, el 60,9%. También existen diferencias en la utilización de determinados servicios, como es el caso los servicios de ocio, transferencia de ficheros, banca electrónica y compra de bienes y servicios.

Atendiendo al nivel de instrucción, se aprecia que los usuarios de Internet con estudios superiores lo que más utilizan es el correo electrónico y los medios de comunicación. Esto mismo ocurre con los que poseen estudios medios y cambia con los que tienen estudios primarios, ya que utilizan más los medios de comunicación, seguido del correo electrónico.

El correo electrónico interesa, especialmente, a mujeres que viven solas, ocupadas, de entre 25 y 34 años y de nivel de instrucción superior.

Los medios de comunicación interesan, especialmente, a varones, inactivos, de 65 y más años y de nivel de instrucción primario.

La información sobre bienes y servicios interesa más a los varones que conviven en pareja, ocupados, de entre 25 y 34 años y de nivel de instrucción superior.

4.3.2. Comercio electrónico

El número de personas que compró algún producto por Internet, en los últimos tres meses, según la encuesta del año 2004, fue de 91.600. En este punto hay que destacar que la pregunta sufrió un cambio en el año 2003. Desde ese momento, se pregunta por las compras realizadas en los tres últimos meses. En años anteriores, se preguntaba si se había realizado alguna compra, sin precisar el período. Al comparar la evolución en estos últimos años se debe tener presente esta puntualización. En el año 2003, 73.400 personas compraron a través de Internet, lo que supone una diferencia de 18.200 personas.

Adinak eta lanbide-motak alde nabarmena ezartzen dute sarean komunikatzeko era aukeratzekoan. Horrela, posta elektronikoa gehien erabiltzen dutenak 25-34 urte bitartekoak dira, %86,1; landunak %82,3, aldiz, ikasleek –%81,0– eta ez-aktiboak eta langabetuak –%69,8–. Etxegune-motaren arabera, bakarrik bizi direnak lehen postuan daude, %83,4.

Sexuaren arabera, alde nabarmena dago hedabideen web guneetan sartzekoan: erabiltzaile gizonezko guztien %74,4k erabiltzen ditu zerbitzu horiek, aldiz, emakumezkoen %60,9k. Badira aldeak zerbitzu jakin batzuk erabiltzean ere, hala nola fitxategi-transferentzia, banka elektronikoa eta ondasun eta zerbitzu erosketak.

Ikasketak maila dagokienez, ikus daiteke goi-mailako ikasketak dituzten erabiltzaileek gehienbat posta elektronikoa eta hedabideak erabiltzen dituztela. Gauza bera gertatzen da bigarren mailako ikasketak dituztenekin, baina aldatu egiten da lehen mailako ikasketak dituztenen kasuan, gehienbat hedabideak erabiltzen baitituzte eta, ondoren, posta elektronikoa.

Posta elektronikoa bereziki interesatzen zaie emakumezkoen, landunei, 25-34 urte artekoen eta goi mailako ikasketak dituztenei.

Komunikabideak bereziki interesatzen zaizkie gizonezkoen, ez-aktiboek, 65 urte eta gehiagokoen eta lehen mailako ikasketak dituztenei.

Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa gehiago interesatzen zaie gizonezkoen, bikotearekin bizi direnei, landunei, 25-34 urte artekoen eta goi-mailako ikasketak dituztenei.

4.3.2. Merkataritza elektronikoa

Aurreko azken hiru hilabeteetan produkturen bat Interneten bidez erosi zutenak, 2004ko inkestaren arabera, 91.600 izan ziren. Hemen argi utzi behar da 2003an galdera aldatu egin zela. Orduz geroztik aurreko azken hiru hilabeteetako erosketek buruz galdetu da; beste urteetan, ordea, erosketek buruz baino ez zen galdetzen, epe mugaturik gabe. Azken urteetako bilakaera konparatzean, alderdi hori kontuan izan behar dugu. 2003an, 73.400 pertsonak erosi zuten Interneten bidez, hau da, 18.200 pertsonako aldea egon da.

15 URTEKO ETA GEHIAGOKO INTERNET-ERABILTZAILEAK, PRODUKTU EDO ZERBITZUAK EROSI DITUZTENAK, HIRUHILEKOEN ARABERA. EUSKAL AE. 2000-2004. MILAKOTAN.

POBLACIÓN DE 15 Y MÁS AÑOS USUARIA DE INTERNET QUE HA COMPRADO PRODUCTOS O SERVICIOS, SEGÚN TRIMESTRE. C.A. DE EUSKADI. 2000-2004. EN MILES.

	GUZTIRA TOTAL
2000	
II. hiruilekoa / II Trimestre	30,2
IV. hiruilekoa / IV Trimestre	36,1
2001	
II. hiruilekoa / II Trimestre	63,4
IV. hiruilekoa / IV Trimestre	89,3
2002	
II. hiruilekoa / II Trimestre	98,6
IV. hiruilekoa / IV Trimestre	98,0
2003	
II. hiruilekoa / II Trimestre	83,8
IV. hiruilekoa / IV Trimestre	63,0
2004	
II. hiruilekoa / II Trimestre	88,6
IV. hiruilekoa / IV Trimestre	94,7
2000 urteko batez bestekoa / Media anual	33,2
2001 urteko batez bestekoa / Media anual	76,2
2002 urteko batez bestekoa / Media anual	98,3
2003 urteko batez bestekoa / Media anual	73,4
2004 urteko batez bestekoa / Media anual	91,6

Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

Durante el año 2004, los productos más comprados a través de la red fueron: viajes y alojamientos (31,4%), electrónica (17,8%) y entradas a espectáculos (15,7%). Los productos que menos se compraron fueron: loterías o apuestas (0,3%), noticias, información (0,3%) y coches, motos, accesorios (1,9%).

La compra electrónica la realizan en mayor medida los varones, quienes residen en Gipuzkoa, los de mediana edad –entre 25 y 34 años–, los que tienen estudios superiores y los que, según la relación con la actividad, son activos.

Por sexo, existen claras diferencias a la hora de hacer compras a través de Internet: así, el 24,3% de los internautas varones y el 42,7% de mujeres compran viajes y alojamientos; el 21,5% de los varones y el 11,7% de las mujeres compran electrónica; el 8,6% de los varones y el 1,7% de las mujeres compran material informático y el 13,6% de los varones y el 18,9% de las mujeres compran entradas a espectáculos.

En cuanto a la valoración de los usuarios sobre la seguridad en el comercio electrónico, a grandes rasgos, la opinión positiva resulta mayoritaria, ya que el 20,4% dicen que les ofrece mucha seguridad, el 35,5% bastante seguridad y, por el contrario, sólo el 29,4% consideran que les ofrece poca seguridad y que no les ofrece ninguna seguridad el 14,7% de los que han comprado.

La forma de pago más utilizada en el comercio electrónico es la tarjeta de crédito (65,4%) y, en menor medida, la cuenta corriente (19,2%) o el pago contra reembolso (17,6%). Otras formas de pago son seleccionadas por muy pocas personas.

2004an sarearen bidez gehien erosi diren produktuak honakoak izan dira: bidaiak eta ostatatzeak (%31,4), elektronikak (%17,8) eta ikuskizunetarako sarrerak (%15,7). Gutxi erosi direnak izan dira: loteriak edo apustuak (%0,3), albisteak, informazioa (%0,3) eta autoak, motoak eta haien osagarriak (%1,9).

Erosketa elektronikoak egiten dituzte, batez ere, Gipuzkoan bizi diren gizonezkoek, adin ertainekoek –25 eta 34 urte bitartekoek–, goi-mailako ikasketak dituztenek eta, jardueraren arabera, landunak direnek.

Sexuaren arabera, alde nabariak daude Interneten bidez egiten diren erosketetan: gizonezko internauten %24,3k eta emakumezkoen %42,7k bidaiak eta ostatatzeak erosten dituzte; gizonezkoen %21,5k eta emakumezkoen %11,7k elektronikak; gizonezkoen %8,6k eta emakumezkoen %1,7k material informatikoa eta gizonezkoen %13,6k eta emakumezkoen %18,9k ikuskizunetarako sarrerak.


Erabiltzaileek merkataritza elektronikoaren segurtasuna balioztatzen dutenean, gehienek iritzi positiboa ematen dute, oro har; izan ere, %20,4k adierazi dute segurtasun handia ematen diela, %35,5ek nahikotzat jo dute, eta, aitzitik, %29,4k baino ez zuten uste segurtasun gutxikoa dela eta batera segurtasunik ez duela iritzi ziotenak %14,7 ziren.

Kreditu-txartela erabiltzen da gehien merkataritza elektronikoan (%65,4) eta gutxiago kontu-korrentea (%19,2) edo jasotzean ordaintzea (%17,6). Oso gutxi aukeratzen du bestelako ordainbideren bat.

Población de 15 y más años usuaria de Internet que ha comprado a través de Internet por la forma de pago de las compras.
C.A. de Euskadi. 2004. Media anual. (%)

20.

Sarean erosi duten 15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak, erosketen ordainbidearen arabera.
Euskal AE. 2004. Urteko batez bestekoa. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.


4.3.3. Idioma utilizado

Población de 15 y más años usuaria de Internet según los idiomas utilizados en las conexiones, según trimestre.
C.A. de Euskadi. (%)

21.

4.3.3. Erabiltzako hizkuntza

15 urteko eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak, Interneteko konexioetan erabiltzako hizkuntzaren arabera, hiruhilekoka.
Euskal AE. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

En cuanto al idioma de navegación, prácticamente el 100% de todos los usuarios utilizan el castellano en sus accesos a la red. Además, el inglés lo emplea el 25,9% y los que navegan en euskera representan el 15,7%. La presencia de navegantes en lenguas distintas a las anteriores es pequeña, ya que, el francés supone un 2,2% y otros idiomas distintos a los anteriores no superan el 1,1% de usuarios, tomados estos porcentajes como media anual de 2004.

4.3.4. Portales y Webs más utilizados

En este epígrafe se analizan los datos obtenidos de las preguntas abiertas 'Indique los 5 últimos Webs visitados' y 'Señale los 5 buscadores o portales que más utiliza'. Se contabiliza el número de menciones que, cada uno de los sitios Webs o, en su caso, buscadores o portales, han recibido para el período de estudio; un encuestado puede citar o mencionar más de un buscador o Web.

Nabigazioko hizkuntzari dagokionez, ia erabiltzaile guztiek (%100) gaztelania erabiltzen dute sarean sartzeko. Horrez gain, %25,9k ingelesa erabiltzen dute eta sarean euskaraz ibiltzen direnak %15,7 dira. Aipaturiko hizkuntzez bestelakoak erabiltzen dituzten internautak oso gutxi dira: frantsesa %2,2k eta beste hizkuntza batzuk ez dira %1,1era iristen, ehunekoak 2004ko batez bestekoari dagozkio.

4.3.4. Atari eta web gune erabilienak

Epigrafe honetan "Adieraz itzazu bisitatu dituzun azken 5 web guneak" eta "Adieraz itzazu gehien erabiltzen dituzun 5 bilagailu edo atariak" galderetan lortutako datuak analizatu ditugu. Web gune bakoitza –edo, dagokionean, bilagailu edo atari bakoitza- aztertutako aldiaren zenbat aldiz aipatzen den hartzen da kontuan. Inkestatuak bilagailu edo web gune bat baino gehiago aipa ditzake.

7. TAULA
TABLA 7
INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-FAMILIAK
ENCUESTA SOBRE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACION-FAMILIAS

15 URTEKO ETA GEHIAGOKO INTERNET-ERABILTZAILEEK AIPATZEN DITUZTEN ATARI ETA BILAGAILUEK IZANIKO BILAKAERA. EUSKAL AE. 2000-2004. URTEKO BATEZ BESTEKOA (GUZTIZKO AIPAMENEN %).
EVOLUCIÓN DE LAS MENCIONES DE PORTALES Y BUSCADORES UTILIZADOS POR LA POBLACIÓN USUARIA DE INTERNET DE 15 Y MÁS AÑOS. C.A. DE EUSKADI. 2000-2004. MEDIA ANUAL (% DEL TOTAL DE MENCIONES).

Aipatuak / Mencionados	2000	2001	2002	2003	2004
GOOGLE	1,2	12,0	36,7	65,7	76,0
YAHOO	31,7	25,5	21,3	14,6	9,9
TERRA	33,8	26,0	16,9	9,9	6,2
MSN	1,1	4,8	5,1	2,6	1,9
HOTMAIL	-	-	2,3	0,6	1,9
ALTAVISTA	10,5	5,6	3,5	1,6	1,2
LYCOS	-	-	2,0	0,6	0,2
NAVEGALIA	2,7	4,9	2,5	0,2	0,1
YA	-	-	1,6	0,6	0,2
WANADOO	-	-	1,4	1,1	0,8

Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

En cuanto a los buscadores más utilizados, y continuando con su escalada de años anteriores, Google resulta ser el portal más mencionado por los internautas de la C.A. de Euskadi en 2004, al igual que en el 2003 y en el 2002. Durante estos años estudiados se observa cómo a la vez que Google ha ido subiendo, los otros dos portales que le siguen a éste han ido disminuyendo. Google ha duplicado su presencia en los dos últimos años, pasando del 36,7 en 2002 a 76% en 2004. Mientras, Yahoo y Terra siguen bajando. Más alejados quedan los datos de MSN (1,9%), Altavisa (1,2%) y Wanadoo (0,8%).

Sobre las Webs mencionadas como últimas visitadas, siguen predominando con claridad las relacionadas con la información, ya que las tres más citadas corresponden a diarios digitales. Ocupa el primer lugar Elcorreodigital.com (10,4%), seguido de Diarivasco.com (4,5%) y Marca.es (3,8%). La primera Web no relacionada con la prensa es la página institucional del Gobierno Vasco –Euskadi.net– (3,4%). Otras se van situando en estos años en torno al 2-3%, como serían, Ehu.es (3,2%), Lanbide.net (2,2%), BBK.es (2,4%), Gipuzkoa.net (2,7%).

Bilagailu erabilienei dagokienez, eta aurreko urteetako gorakadari eutsita, Google izan da EAEn internautek 2004an gehien aipatu duten ataria, 2003an eta 2002an bezala. Aztertutako urte hauetan ikusten da Googlek gora egin ahala, jarraian dituen beste bi atariak behera egin dutela. Googleren presentzia bikoiztu egin da azken bi urte hauetan, 2002an 36,7 izatetik 2004an %76 izatera. Yahoo eta Terra behera egiten ari dira. Urrunago daude beste atari batzuk: MSN (%1,9), Altavisa (%1,2) eta Wanadoo (%0,8).

Bisitatu diren azken web guneei dagokienez, argi eta garbi, informazioarekin loturiko web guneek nagusi izaten jarraitzen dute, gehien aipaturiko hirurak egunkari digitala baitira. Lehenengo tokian Elcorreodigital.com (%10,4) ageri da; ondoren Diarivasco.com (%4,5) eta Marca.es (%3,8). Pentsari loturik ez dagoen lehenbiziko web gunea Eusko Jaurlaritzaren erakunde-web gunea da –Euskadi.net– (%3,4). Beste batzuk %2-3 inguruan jarri dira urte hauetan: Ehu.es (%3,2), Lanbide.net (%2,2), BBK.es (%2,4), Gipuzkoa.net (%2,7).

15 URTEKO ETA GEHIAGOKO INTERNET-ERABILTZAILEEK GEHIEN AIPATZEN DITUZTEN WEBGUNEK IZANIKO BILAKAERA. EUSKAL AE 2000-2004. URTEKO BATEZ BESTEKO (GUZTIZKO AIPAMENEN %).
EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES WEBS MENCIONADAS POR LA POBLACIÓN USUARIA DE INTERNET DE 15 Y MÁS AÑOS. C.A. DE EUSKADI. 2000-2004. MEDIA ANUAL (% DEL TOTAL DE MENCIONES).

Aipatuak / Mencionados	2000	2001	2002	2003	2004
ELCORREODIGITAL.COM	14,2	10,9	11,9	11,9	10,4
MARCA.ES	9,1	4,1	5,8	4,8	3,8
DIARIOVASCO.COM	5,3	4,3	4,7	5,4	4,5
EUSKADI.NET	10,0	5,6	4,5	4,5	3,4
IBERIA.COM	7,7	3,6	3,5	2,5	2,9
ELPAIS.ES	5,9	4,0	3,3	1,7	2,0
CAJALABORAL.ES	-	-	3,0	2,4	1,8
ELMUNDO.ES	3,5	3,8	2,6	2,4	2,1
BOE.ES	4,7	1,8	2,5	1,9	1,6
EHU.ES	8,0	3,8	2,5	3,9	3,2
LANBIDE.NET	-	-	2,2	2,9	2,2
BBK.ES	-	-	2,1	3,3	2,4
GIPUZKOA.NET	-	-	2,1	1,8	2,7

Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

5. Los menores y la Sociedad de la Información

Un grupo de usuarios de especial interés, tanto por su uso actual de Internet como por su condición de integrantes de una sociedad en las que las TIC van a estar, sin duda, fuertemente arraigadas, es el de personas que componen la actual franja de edad que va de los 6 a los 14 años. Es éste un colectivo en el que Internet ya está presente, pero resulta que hablar de su importancia en la Sociedad de la Información y de la Comunicación es tanto como hablar del futuro inmediato de esas TIC.

A pesar de que la utilización que de Internet hace este grupo de población es ya importante, no cabe duda de que la utilización que de las TIC hacen es radicalmente diferente al uso que otras franjas de edades realizan. Estos jóvenes han nacido con las TIC; desaparece así el miedo al uso de algo 'desconocido'. Por el contrario, están, y estarán, habituados a su presencia y utilización, por no hablar de que están llamados a ser, además de los usuarios, los investigadores del desarrollo de las actuales y futuras TIC.

Los menores destacan sobre el resto de los grupos respecto al uso del ordenador. Así, el 92,4% había utilizado un ordenador alguna vez en los últimos tres meses, frente al 7,6% que no lo había hecho nunca, en el último trimestre del 2004. Ese porcentaje resulta ser el mayor de todos los grupos de usuarios de ordenador de la C.A. de Euskadi, seguido del grupo de 15 a 24 años, con un 82,7%.

5. Adingabeak eta informazioaren gizartea

Interes bereziko erabiltzaile multzoa da, bai Internet erabiltzen dutelako eta bai IKTak zalantzarik gabe oso errotuta izango dituen gizarteko kide direlako ere; adingabeak 6 eta 14 urte bitartekoak dira. Talde honetako pertsonak dagoeneko ezagutzen dute Internet, baina Informazioaren eta Komunikazioaren Gizartean duen garrantziaz hitz egitea IKT horien berehalako etorkizunari buruz hitz egitearen modukoa da.

Biztanle horiek Internet asko erabiltzen dute; hori gorabehera, zalantzarik gabe esan daiteke IKTen gainean egiten duten erabilera eta beste adin-tarte batzuetako erabilera erabat ezberdinak direla. Gazte hauek IKTekin jaiotuta dira; eta, horrela, gauza "ezezagunak" erabiltzeko beldurra desagertu da. Aitzitik, teknologia horiek edukitzera eta erabiltzera ohituta daude eta egongo dira; baina ez hori bakarrik, teknologia berrien erabiltzaile izateaz gainera egungo eta geroko IKTen garapenean ikertzerak daude eta.

Ordenagailuaren erabilera adingabeak dira nagusi, beste talde guztien aldean. Izan ere, 2004. urteko azken hiruhilekoan, adingabeen %92,4ak azken hiru hilabeteetan noizbait erabili du ordenagailua eta %7,6ak ez du sekula ordenagailua erabili. Ehuneko hori Euskal Autonomia Erkidegoan ordenagailua erabiltzen duten taldeetako handiena da, eta talde horren atzetik 15 eta 24 urte bitarteko biztanleak daude %82,7arekin.


El porcentaje del 38,1% del grupo de 6 a 14 años que accedió a Internet en el año 2004 es superado por el 76,2% del grupo de 15-24 años, por el 56,1% del de 25-34 años y por el 43,5% del grupo de usuarios de entre 35 y 44 años. Los padres, de alguna manera permiten el acceso al ordenador pero filtran el uso de Internet a casi 3/5 de los menores que podrían acceder a la red. A pesar de ello, el panorama es francamente esperanzador para el futuro de las TIC.

2004. urtean 6 eta 14 urte bitarteko adingabeen %38,1a sartu zen Internetera, baina gainerako adin-tarteetako biztanleek ehuneko hori gainditzen dute: 15-24 urte bitarteko biztanleen %76,2 sartu zen Internetera, baita 25-34 urte bitarteko %56,1 eta 35-44 urte bitarteko %43,5 ere. Gurasoek nolabait ordenagailuan ibiltzen uzten diete, baina Internetera sartzeko aukera duten adingabeen 3/5ari sarbidea kontrolatu egiten zaie. Dena den, IKTen egoera benetan itxaropentsua da.

Población de 6 y más años usuaria de ordenador e Internet por edad, según trimestre.
C.A. de Euskadi. 2004. (%)

22.


Ordenagailu eta Internet erabiltzen duten 6 urteko eta gehiagoko biztanleak, adinaren arabera, hiruhilekoka. Euskal AE. 2004. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

La periodicidad de los accesos presenta unas cifras llamativas, ya que el 72,9% lo hace todas las semanas y el 17,8% alguna vez al mes; por el contrario, tan sólo el 0,2% manifiesta acceder no todos los meses a Internet. De este grupo de usuarios, el 9,3% navega diariamente. En cuanto al idioma de acceso, el euskera representa el 35,5% de las conexiones, habiéndose producido un incremento respecto al año 2003 de 12 puntos porcentuales.

Internetera sartzeko maiztasuna deigarria da: %72,9a aste guztietan sartzen da Internetera eta %17,8a hilean behin edo behin; bestalde, %0,2ak bakarrik esaten du ez dela hilabete guztietan Internetera sartzen. Erabiltzaile horien artean, %9,3 egunero dabil Interneten. Nabigatzean erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, konexioen %35,5 euskarazkoak dira eta, hain zuzen, 2003. urtearen aldean %12 gehitu da kopuru hori.



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

En lo que respecta al fin principal de la conexión, el 51,5% manifiesta acudir a la red por motivos personales, mientras que las cuestiones académicas suponen el 48,5% de los accesos.

Con referencia al motivo del uso del ordenador, lideran este apartado los juegos (93,2%), procesador de textos (54,4%) y los programas específicos (47,3%).

Konexioaren helburu nagusiari dagokionez, %51,5 arrazoi pertsonalak direla medio dabil sarean baina %48,5 arrazoi akademikoaren ondorioz dabil.

Ordenagailua erabiltzeko arrazoi nagusia jokoak dira (%93,2) eta gero testu-tratamenduko programa (%54,4) eta programa bereziak (%47,3).

En cuanto al objeto del uso de Internet, se utiliza preferentemente de la siguiente manera: bibliotecas y documentación (79,2%), medios de comunicación (52,4%) y servicios de ocio (48,1%).

Si se analiza el lugar de acceso a Internet, y según los datos anuales del 2004, el 66,4% del grupo de usuarios de 6 a 14 años accede en su hogar, en tanto que el 75,8% navega desde su centro de estudio y tan sólo el 14,3% lo hace desde otro lugar.

Por último, habría que subrayar que resulta muy significativa la alta tasa de uso del PC entre los menores de la C.A. de Euskadi, así como el predominio del acceso a bibliotecas y documentación. También, que existen porcentajes interesantes en acceso a través de la red a chats, conversaciones, correo electrónico, información sobre bienes y servicios, museos virtuales. En esta etapa de la vida puede resultar interesante el ocio como vía del aprendizaje de las herramientas TIC.

Internet erabiltzeko xedea, aldiz, honela banatzen da: liburutegiak eta dokumentazioa (%79,2), komunikabideak (%52,4) eta aisiako zerbitzuak (%48,1).

2004. urteko datuen arabera, 6 eta 14 urte bitarteko erabiltzaileen %66,4 etxean sartzen da Internetera; %75,8ak ikastokitik nabigatzen du eta soilik %14,3ak nabigatzen du beste tokiren batetik.

Amaitzeko, azpimarragarria da Euskal Autonomia Erkidegoko adingabeen artean ordenagailu pertsonala erabiltzen dutenen tasa altua dela eta gehienak liburutegi eta dokumentazioetara sartzen direla. Sarearen bidez txat, elkarriketa, posta elektronikoko, ondasun eta zerbitzuei buruzko informazio eta museo birtualetara sartzen direnen ehunekoa ere altua da. Adin horretako erabiltzaileek, gainera, aisiaren bidez IKT tresnak ikasten dituzte.

6. Clasificación de los jóvenes según el uso del ordenador y el acceso a los equipamientos TIC

6.1 Planteamiento y objetivos del análisis

El objetivo del análisis es obtener tipos de jóvenes, entendido como el grupo de población entre 6 y 30 años, con diferentes características en relación al acceso y uso de las Tecnologías de la Información y Comunicación (TIC).

En principio se han tomado las variables principales del cuestionario que tienen relación con el acceso a equipamientos de la vivienda en general, y a los equipamientos informáticos en el centro de estudios y de trabajo. Otro bloque de variables ha sido las del uso del ordenador, en cuanto a finalidad, uso, frecuencia, programas, etc.; y por último, las referidas al uso de Internet.

Las variables activas al principio eran 54 (con 150 modalidades). Finalmente, se han eliminado algunas variables y se han hecho algunas recodificaciones, para evitar que haya modalidades con poca frecuencia que resulten demasiado decisivas en el análisis. Junto con las variables activas anteriores, es decir, las que van a participar en la formación de los factores, se han incluido como ilustrativas las de tipo sociodemográfico:

- Sexo: varón y mujer.
- Edad: 6-14 años, 15-24 años y 25-30 años.
- Relación con la actividad: estudiantes, ocupados e inactivos-parados.
- Nivel de instrucción: primarios, secundarios y superiores.
- Tipo de familia: con hijos, con pareja y aislados (viven solos o en familias sin núcleo familiar).

En el primer bloque, acceso a equipamientos de la vivienda y a equipamientos informáticos en el centro de estudios y de trabajo, se han mantenido las siguientes variables:

- Correo personal
- Teléfono móvil personal
- Televisión (convencional o de otro tipo)
- Teletexto
- Vídeo
- Reproductor de DVD
- Equipo de música
- Teléfono en la vivienda
- Ordenador en la vivienda
- Conexión a Internet en la vivienda (Convencional, otro tipo, No)
- Ordenador en el centro de estudios
- Conexión a Internet en el centro estudios
- Ordenador en el centro de trabajo y
- Conexión a Internet en el centro de trabajo.

En el segundo bloque, uso del ordenador, se han mantenido las siguientes:

- Realizado cursos de ordenador
- Uso de ordenador (Últimos 3 meses, alguna vez, nunca)

6. Gazteen sailkapena, ordenagailuaren erabileraren eta IKT ekipamenduetarako sarbidearen arabera

6.1 Azalpena eta azterketaren helburuak

Azterketaren helburua da gazte motak lortzea (6 eta 30 urte bitartekoak); gazteek ezaugarri ezberdinak izan behar dituzte Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietara (IKT) sartzeari eta horiek erabiltzeari dagokionez.

Lehenbizi, ikastokian eta lantokian etxebizitzaren hornikuntzara eta ekipamendu informatikoetara sartzeari buruzko galdesortaren aldagai nagusienak hartu dira. Beste alde batetik, ordenagailuaren erabilerari buruzko aldagaiak hartu dira, xede, erabilerara, maiztasun, programa eta abarrei dagokionez. Eta gero, Interneten erabilerari buruzkoak.

Hasieran aldagai aktiboak 54 ziren (150 modalitatekin). Azkenik, aldagai batzuk ezabatu egin dira eta kodeketa berriak egin dira, azterketan erabakigarriak izan arren maiztasun gutxiak diren modalitateak egon ez daitezela. Aurreko aldagai aktiboekin batera, hau da, faktoreak eratzen lagunduko dutenekin batera, soziodemografikoak ere sartu dira adierazgarri gisa:

- Sexua: gizona eta emakumea.
- Adina: 6-14 urte, 15-24 urte eta 25-30 urte.
- Jarduerarekiko lotura: ikasleak, okupatuak eta ez-aktiboak/langabetuak.
- Heziketa maila: lehen mailako ikasketak, bigarren mailakoak eta goi-mailakoak.
- Familia mota: seme-alabadunak, bikotedunak eta isolatuak (bakarrik bizi dira edo familia-nukleorik ez duten familietan).

Lehenengo multzoan (etxebizitzaren hornikuntzara eta ekipamendu informatikoetara sartzea ikastokian eta lantokian), hurrengo aldagaiak mantendu dira:

- Posta pertsonala
- Sakelako telefono pertsonala
- Telebista (ohikoa edo beste mota batekoa)
- Teletestua
- Bideoa
- DVD-irakurgailua
- Musika-katea
- Etxebizitzako telefonoa
- Etxebizitzako ordenagailua
- Etxebizitzako Internetarako konexioa (ohikoa, besteren bat, ez dago)
- Ikastokiko ordenagailua
- Ikastokiko Internetarako konexioa
- Lantokiko ordenagailua eta
- Lantokiko Internetarako konexioa.

Bigarren multzoan (ordenagailuaren erabilera) hurrengo aldagaiak mantendu dira:

- Ordenagailuen gaineko ikastaroak
- Ordenagailuaren erabilera (azken 3 hileetan, noizbait, inoiz ez)

- Frecuencia de uso de ordenador (diaria, semanal, ocasional, nunca)
- Uso de programas, concretamente: Procesador de texto, Hoja de cálculo, Base de datos, Presentaciones, Foto, vídeo, Reproductores de música, Juegos, Programas específicos, Navegadores de Internet y para grabar o copiar CDs o DVDs.
- También se incluyen las relativas al lugar de uso del ordenador (vivienda, centro de estudio o centro de trabajo)
- las de uso del ordenador (profesional, académico, ocio), así como
- el fin principal de uso.

En estas variables hay modalidades que clasifican a los que no han utilizado el ordenador los 3 últimos meses.

En el último bloque, uso de Internet, se incluyen:

- El uso de Internet en sí (últimos 3 meses, alguna vez, nunca)
- El lugar de acceso (hogar, centro de trabajo, centro de estudios)
- Frecuencia y días de mayor acceso
- El fin principal de la conexión
- La realización de compras por Internet o
- La búsqueda de información para compras.

En estas variables hay una modalidad para los que no han utilizado Internet en los últimos 3 meses.

Hay un total de 43 variables activas con 126 modalidades.

6.2 Resultados del análisis factorial de correspondencias

Se ha realizado un análisis factorial de correspondencias con estas variables activas e ilustrativas. En cuanto a los factores, los 5 primeros explican un 62% de la inercia total. Los factores 3 al 5 explican poca inercia. Por ello, lo único que aportan son algunos matices, como se verá a continuación, debido probablemente a la cantidad de información incluida en el análisis.

Aunque se ha tratado de reducir al máximo con recodificaciones, hay modalidades con frecuencias bajas, algunas de las cuales han contribuido en mayor medida al análisis. Las más importantes son las siguientes:

- Mayor acceso a Internet en festivos
- No utiliza el ordenador nunca
- No dispone de ordenador en el centro de estudios
- Frecuencia de uso de Internet inferior a semanal
- Frecuencia de uso de ordenador, ocasional
- Han comprado por Internet alguna vez
- Han comprado por Internet en los 3 últimos meses

En realidad, las variables y modalidades que más han intervenido en general para la formación del mapa factorial son las relativas al uso del ordenador e Internet. A su vez, las variables que menos han intervenido en la formación de los factores son las relativas a los equipamientos. Aunque éstas sí aparecerán en la clasificación de usuarios.

- Ordenagailua erabiltzeko maiztasuna (egunero, astero, bazuetan, inoiz ez)
- Programen erabilera ona: testu-tratamenduko programa, kalkulatu-orrrien programa, datu-basea, aurkezpenak, argazkia, bideoa, musika-errepuzigailuak, jokoak, programa bereziak, Interneteko nabigatzaileak eta CD nahiz DVD grabagailu edo kopiagailuak.
- Ordenagailua erabiltzeko tokiari buruzko aldagaiak (etxebizitza, ikastokia edo lantokia)
- ordenagailua erabiltzeari buruzkoak (lanerako, ikasteko, aisiarako) eta
- erabilera nagusiarenak.

Aldagai horietan guztietan badaude azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili ez dutenak sailkatzeko modalitateak.

Azken multzoan (Interneten erabilera) honako aldagaiak sartzen dira:

- Interneten erabilera (azken 3 hilabeteak, noizbait, inoiz ez)
- Sarera sartzeko tokia (etxea, lantokia, ikastokia)
- Maiztasuna eta sarera sartzeko egun nagusienak
- Konexioaren xede nagusia
- Internet bidez erostea edo
- Erosteko informazioa bilatzea.

Aldagai horietan, gainera, badago azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili ez dutenak sailkatzeko modalitate bat.

Guztira 43 aldagai aktibo daude, 126 modalitatetarekin.

6.2 Korrespondentzien faktore-analisiaren emaitzak

Aldagai aktibo eta adierazgarri horien bidez, korrespondentzien faktore-analisia egin da. Lehenengo 5 faktoreek inertzia osoaren %62 azaltzen dute. 3., 4. eta 5. faktoreek inertzia gutxi azaltzen dute. Beraz, eta jarraian ikusiko den bezala, ñabardura batzuk baino ez dituzte ematen batez ere analisisan dagoen informazio kopuruaren arabera.

Kodeketa berriak eginez ahalik eta gehien murrizten ahalegindu arren, modalitate batzuk gutxi agertzen dira eta beste batzuk analisia egiten besteek baino gehiago lagundu dute. Garrantzitsuenak hauek dira:

- Jaiegunetan Internetera sarriago sartzen da
- Ez du inoiz ordenagailua erabiltzen
- Ez du ordenagailurik ikastokian
- Astebete baino gutxiago erabiltzen du Internet
- Ordenagailua noizean behin erabiltzen du
- Noizbait Internetez zerbait erosi du
- Azken 3 hilabeteetan Internet bidez erosi du

Egia esan, oro har faktoreen mapa egiteko gehien erabili diren aldagaiak eta modalitateak ordenagailuaren eta Interneten erabilerrari buruzkoak izan dira. Era berean, faktoreen mapa egiteko gutxien erabili diren aldagaiak ekipamenduei buruzkoak izan dira. Dena den, azken hauek erabiltzaileen sailkapenean bai agertzen dira.


Los factores que obtenemos se podrían tomar como las variables que resumen el conjunto de los datos y los podemos describir del siguiente modo:

Lortzen ditugun faktoreak, datu guztiak laburtzen dituzten aldagaiztat har daitezke eta honelaxe deskriba daitezke:

Jóvenes en relación a las TIC: Mapa factorial.
Modalidades de las variables activas,
ilustrativas y tipos.
C.A. de Euskadi. IV Trimestre 2004

IKTen inguruko gazteak: faktore-mapa.
Aldagai aktiboan, erakusgarrien eta moten modalitateak.
Euskal AE. 2004ko IV. hiruhilekoa

24.



6.2.1 Primer factor. Uso y no uso del ordenador

El primer factor explica el 31% de la inercia, es decir, casi una tercera parte de las asociaciones entre las variables. Este factor viene definido por las modalidades relacionadas con el uso del ordenador. En el lado positivo se sitúan las modalidades contrarias al acceso y uso del ordenador, de programas en general y del uso de Internet en cualquier lugar.

En el lado negativo se sitúan las relacionadas con el uso del ordenador e Internet. Las modalidades decisivas son el uso del ordenador y de Internet (en especial) en los últimos 3 meses y el uso del ordenador para el ocio.

Las características sociodemográficas mejor representadas en este factor son los estudios superiores y los estudiantes, que están en el lado negativo relacionados con el uso del ordenador.

6.2.2 Segundo factor. Uso profesional y uso académico.

El segundo factor explica un 14% de la inercia. En este factor, se opone el uso profesional del ordenador (lado positivo) y el académico (lado negativo). Alrededor del uso profesional se concentran, lógicamente, la disponibilidad de ordenador e Internet en el centro de trabajo y con finalidad profesional en ambos casos. Otra modalidad asociada es la frecuencia de uso del ordenador diaria, el haber seguido cursos de formación en ordenadores y tener cuenta de correo electrónico.

6.2.1 Lehenengo faktorea. Ordenagailua erabiltzea eta ez erabiltzea.

Lehenengo faktoreak inertiaren %31 azaltzen du, hau da, aldagaien arteko loturaren ia hirurena. Halaber, ordenagailuaren erabilerari lotutako modalitateek zehazten dute. Alderdi positiboan, ordenagailua, programa orokorra eta Internet ez eduki eta edozein tokitan ez erabiltzeari buruzko modalitateak daude.

Alderdi negatiboan, ordea, ordenagailua eta Internet erabiltzeari buruzkoak daude. Azken 3 hilabeteetako modalitate erabakigarrienak ordenagailuaren eta Interneten (bereziki) erabilerarenak dira eta aisiarako ordenagailua erabiltzearena.

Faktore honetan hobeto islatzen diren ezaugarri soziodemografikoak goi-mailako ikasketak eta ikasleak dira, hau da, ordenagailuaren erabilerari lotuta alderdi negatiboan daudenak.

6.2.2 Bigarren faktorea. Lanerako eta ikasteko erabiltzea.

Bigarren faktoreak inertiaren %14 azaltzen du. Faktore honetan, ordenagailua lanerako (alderdi positiboan) eta ikasteko (alderdi negatiboan) erabiltzea kontrajartzen dira. Lanerako erabileraren barruan sartzen da, logikoa denez, lantokian ordenagailua eta Internet edukitzea eta kasu bietan lanerako xedearekin gainera. Horri lotuta beste modalitate hauek daude: egunean zenbat aldiz erabiltzen den ordenagailua, ordenagailuei buruzko prestakuntza ikastaroetan parte hartu izana eta helbide elektronikoa izatea.

En el lado negativo, el uso académico, se agrupan las siguientes modalidades: el académico como principal fin del uso del ordenador, disposición de ordenador en el centro de estudios. Otras modalidades es la frecuencia de uso del ordenador semanal, no haber seguido cursos de formación en ordenadores y no tener cuenta de correo personal.

Las características sociodemográficas mejor representadas son los ocupados y los jóvenes más mayores (25-30 años), en el lado positivo; y la Educación Primaria, los estudiantes y el grupo más joven (6-14 años), en el negativo.

6.2.3 Tercer factor. Los equipamientos informáticos en el centro de estudios y en el de trabajo

El tercer factor explica una proporción de inercia muy reducida, algo más de un 8%. De la información que todavía no se ha explicado por los factores anteriores, este factor opone el acceso a los equipamientos TIC en el centro de trabajo (lado positivo) y el acceso a los equipamientos en el centro de estudios (lado negativo). La disponibilidad de ordenador y acceso a Internet en el trabajo está lógicamente asociado al uso profesional, junto a la utilización de aplicaciones específicas.

En este factor, del mismo modo, la disponibilidad del ordenador e Internet en el centro de estudios facilita el uso académico y para el estudio. También se utilizan programas más relacionados con el ocio (música, foto, copias de ,CDs, etc.).

En cuanto a las características personales, los ocupados se sitúan en el lado de los equipamientos en el centro de trabajo, y la modalidad de estudios secundarios y la población de 15 a 24 años en el negativo, con los equipamientos en el centro de estudios.

6.2.4 Cuarto factor. Finalidad puramente de ocio y finalidad académica o laboral

El cuarto factor explica una inercia mucho más reducida (casi 5%). En este caso, opone un uso del ordenador y de Internet puramente de ocio (lado negativo) al uso de Internet para fines laborales o académicos (lado positivo). En el primer caso, ocio, no hay posibilidad de equipo o Internet en el trabajo o en el centro de estudios. El lado positivo está definido únicamente por las dos finalidades mencionadas, y se sitúan aquí las modalidades correspondientes de equipamientos.

Respecto a las características personales, en el lado de la finalidad académica y laboral, se sitúan los estudios superiores.

6.2.5 Quinto factor. El ordenador y el acceso a Internet en la vivienda

El último factor que se va a describir, explica una cantidad similar de inercia (un 4%). Este factor está definido por disponer o no algunos equipamientos de la vivienda, concretamente el ordenador, el acceso a Internet y la televisión no convencional. En un extremo (positivo) se agrupan las modalidades que expresan falta de ordenador e Internet en la vivienda, así como de televisión no convencional. Junto a estas modalidades, aparecen las de frecuencia de uso del ordenador e Internet ocasional.

Alderdi negatiboan, ikasteko erabileran, hurrengo modalitateak daude: ordenagailua erabiltzeko xede nagusia ikasteko izatea, ikastokian ordenagailua edukitzea. Beste modalitate batzuk ere badaude: astean zenbat aldiz erabiltzen den ordenagailua, ordenagailuei buruzko prestakuntza ikastaroetan ez parte hartzea eta helbide elektronikorik ez izatea.

Hobeto islatzen diren ezaugarri soziodemografikoak honakoak dira: okupatuak eta gazte nagusienak (25-30 urte), alderdi positiboan; eta Lehen Hezkuntza, ikasleak eta talde gazteena (6-14 urte), alderdi negatiboan.

6.2.3 Hirugarren faktorea. Ekipamendu informatikoak ikastokian eta lantokian

Hirugarren faktoreak inertiaren alde oso murriztua azaltzen du, %8a baino pixka bat gehiago bakarrik. Aurreko faktoreen bidez oraindik azaldu ezin izan den informazioaren artean, faktore honek kontrajarri egiten ditu lantokian IKT ekipamenduak erabiltzea (alderdi positiboa) eta ekipamendu horiek ikastokian erabiltzea (alderdi negatiboa). Lantokian ordenagailua eta Internet erabiltzeari lotuta dago, logikoa denez, lanerako erabilerarekin eta aplikazio bereziak erabiltzearekin.

Faktore honetan, era berean, ikastokian ordenagailua eta Internet edukiz gero ikasteko erabili daitezkeen bultzatzen du. Aisiari lotutako programak ere gehiago erabiltzen dira (musika, argazkia, CDak kopiatzea...).

Ezaugarri pertsonalei dagokienez, okupatuak ekipamenduak lantokian erabiltzeko alderdian daude; eta bigarren mailako ikasketen modalitatea eta 15 eta 24 urte bitarteko biztanleak alderdi negatiboan daude, ikastokiko ekipamenduekin.

6.2.4 Laugarren faktorea. Aisiako xedea eta ikasteko edo lanerako xedea

Laugarren faktoreak inertzia askoz murriztuagoa azaltzen du (ia %5). Kasu horretan, aisiarako baino ez den ordenagailuaren eta Interneten erabilera (alderdi negatiboa) eta lanerako edo ikasteko den Interneten erabilera (alderdi positiboa) kontrajartzen ditu. Lehenengo kasuan, aisiarakoan, ez dago lanean edo ikastokian ordenagailua edo Internet edukitzeko aukerarik. Alderdi positiboan soilik daude aipatu xedeak, eta ekipamenduen gaineko modalitateak hartzen ditu.

Ezaugarri pertsonalei dagokienez, ikasteko eta lanerako xedeen alderdian goi-mailako ikasketak sartzen dira.

6.2.5 Bosgarren faktorea. Ordenagailua eta Interneterako sarbidea etxebizitzan

Azken faktore honetan antzeko inertzia azaltzen da (%4). Etxebizitzan ekipamendu batzuk daude edo ez daude, hala nola: ordenagailua, Interneterako sarbidea eta ohikoa ez den telebista. Alderdi positiboan, etxebizitzan ordenagailurik edo Internetik ez dagoela azaltzen duten modalitateak eta ohikoa ez den telebista sartzen dira. Modalitate horiekin batera, ordenagailua eta ohiko Internet erabiltzeko maiztasunaren gainekoak agertzen dira.

En el otro extremo (negativo) se agrupan las modalidades de poseer ordenador y acceso a Internet en la vivienda, con conexión no convencional (ADSL, cable, etc.), así como televisión no convencional también. También aparecen aquí las modalidades de conexión diaria a Internet y el uso de programas de copia de CDs, juegos y específicos.

En cuanto a las características personales, en el extremo positivo se sitúan las modalidades de los estudios secundarios y en el lado negativo, se sitúan la de los estudios primarios.

6.3 Descripción de los tipos de jóvenes en relación a las TIC

Después de obtener las puntuaciones factoriales para cada individuo, se ha realizado un análisis de tipos basado precisamente en las puntuaciones factoriales de estos 5 factores descritos. El método utilizado es la Clasificación Ascendente Jerárquica.

Antes de determinar el número de tipos para la clasificación, se han realizado varios intentos. Finalmente se ha optado por una clasificación en 7 grupos, teniendo en cuenta la inercia entre las clases y la posibilidad de describirlas de modo conveniente.

A continuación se hace una descripción general de las clases. Por tamaños, los tipos o clases que se obtienen son relativamente uniformes, en el sentido de que el más grande, tipo 4, supone el 21% de los jóvenes de 6 a 30 años, y el más reducido, el tipo 7, representa al 7% de estos jóvenes.

Además, hay otras características de los tipos, como es su distancia al centro o conjunto de los datos, en este caso, de los jóvenes. También habrá tipos más homogéneos entre sí, etc.

Alderdi negatiboan, etxebizitzan ordenagailua eta Internet ohikoa ez den konexioarekin (ADSL, kablea, etab.) dagoela eta ohikoa ez den telebista ere badagoela azaltzen duten modalitateak sartzen dira. Alderdi honetan, gainera, Internetera egunero konektatzeari eta CDak kopiatzeko programa, joko eta beste berezi batzuei buruzko modalitateak sartzen dira.

Ezaugarri pertsonalei dagokienez, alderdi positiboan bigarren mailako ikasketen gaineko modalitateak daude, eta alderdi negatiboan lehen mailako ikasketen gainekoak.

6.3 IKTen gaineko gazte moten deskribapena

Norbanako bakoitzarentzako faktoreen puntuazioa lortu ondoren, aipatu 5 faktoreetako puntuazio horiek aintzat hartuta moten gaineko azterketa egin da. Hierarkian Gorako Sailkapena erabili da horretarako.

Sailkapenerako dagoen mota kopurua zehaztu baino lehen, ahalegin bat baino gehiago egin da. Azkenik, 7 multzo bereiztea erabaki da; moten arteko inertzia eta behar bezala deskribatu beharra kontuan hartuta betiere.

Ondoren, moten deskripzio orokorra egiten da. Neurriaren arabera, lortutako motak nahiko uniformeak dira; mota handiengan (4. mota) 6 eta 30 urte bitarteko gazteen %21 sartzen da eta txikiengan (7. mota) gazteen %7.

Gainera, motek beste ezaugarri batzuk ere badituzte: datuen gunerako edo multzorako tartea, kasu honetan gazteena. Baina euren artean homogeenagoak, etab. diren motak ere badaude.

Mota / Clase	Inertzia / Inercia			
	Inter	Intra	Abs	%
1	0.6333	0.1123	77.668	13,2
2	0.4195	0.1129	59.474	10,1
3	0.8072	0.0778	110.440	18,8
4	0.4368	0.1486	123.233	20,9
5	0.6243	0.4450	107.922	18,3
6	0.5000	0.1178	65.908	11,2
7	0.4233	0.1412	43.830	7,4
Guztira / Total	38.445	11.555	588.475	99,9
Inertzia guztira Inercia total	50.00			

La división principal es la que se hace entre no usuarios de ordenador (la clase 3) y el resto de las clases, que describen distintos tipos de usuarios de ordenador e Internet, descripciones donde también se tienen en cuenta los equipamientos estudiados.

Se podría ver en la clasificación de usuarios de ordenador incluso una graduación en el uso de las tecnologías. Esta clasificación comenzaría con el grupo de los menores (clase 1), que utilizan el ordenador, con aplicaciones educativas o de juegos, y no Internet. A continuación, se distinguirían dos tipos de estudiantes, los jóvenes que tienen acceso a Internet sólo en el centro de estudios (clase 2), y los que lo tienen también en la vivienda (clase 4), con un uso del ordenador más diversificado.

Seguidamente, se situarían los no estudiantes (clase 5), que hacen un uso fundamentalmente de ocio. Y por último, los jóvenes que trabajan, que, a su vez, se dividen en dos: un grupo que hace un uso del ordenador para trabajo y ocio (clase 6) y otro (clase 7) que utiliza el ordenador únicamente para trabajar.

6.3.1 Tipo 1. Jóvenes estudiantes usuarios de ordenador, no de Internet.

Este tipo reúne al 13,2% de los jóvenes en estudio. Es un grupo homogéneo y relativamente distinto del conjunto de los jóvenes.

Lo característico del tipo 1 es que lo forman menores de 6 a 14 años (91% en este tipo). Lógicamente son estudiantes, de educación primaria preferentemente y residen en familias con hijos. Sobre el acceso a equipamientos, la inmensa mayoría tiene ordenador en el centro de estudios (97,3%), pero sin Internet (81,3%). No suelen tener teléfono móvil (78,9%) ni correo (99,6%) personales. En el resto de los equipamientos no hay diferencias respecto del total de los jóvenes.

Utilizan el ordenador con finalidad académica (100% en este tipo), con frecuencia semanal (87,5%) y en el centro de estudios (93,1%). No realizan cursos de ordenadores. Los programas utilizados son de juegos o aplicaciones específicas, exclusivamente.

Por último, no se conectan nunca a Internet.

6.3.2 Tipo 2. Jóvenes estudiantes usuarios de Internet.

Este tipo reúne al 10,1% de los jóvenes de 6 a 30 años. Es un grupo homogéneo y de los más parecidos al conjunto total de los jóvenes. En esta ocasión, lo característico de este grupo es que lo forman exclusivamente estudiantes con ordenador y acceso a Internet en el centro de estudios. Se trata, sobre todo, de jóvenes de hasta 24 años.

Además de los equipamientos ya mencionados en el centro de estudios, suelen tener ordenador en el hogar en la misma proporción que todos los jóvenes (75% aproximadamente), pero no tienen conexión a Internet en casa (68%).

Utilizan el ordenador en el centro de estudios (97,5%), en el hogar en la misma medida o prácticamente en la misma medida que el total de los jóvenes (alrededor del 30% en ambos

Banaketa nagusia ordenagailua erabiltzen ez dutenen (3. mota) eta gainerako moten artean egiten da; ordenagailuaren eta Interneten erabiltzaile ezberdinak deskribatuz. Deskribapenean, hain zuzen ere, aztertutako ekipamenduak ere hartzen dira kontuan.

Ordenagailuen erabiltzaileen sailkapenean teknologien erabileran mailakatzea dagoela ere ikus daiteke. Sailkapenean, lehenbizi, gazteen taldea ikus daiteke (1. mota); haiek ordenagailua erabiltzen dute ikasteko aplikazioekin edo jokoekin baina ez dute Internetik. Gero ikasle mota bi bereiz daitezke: Internetera ikastokian bakarrik sartzen diren gazteak (2. mota) eta etxebizitzan ere badutenak (4. mota) ordenagailuari erabilera dibertsifikatuagoa emanez.

Ondoren, ikasleak ez direnak egon daitezke (5. mota); batez ere aisiarako erabiltzen dutenak. Eta azkenik, lan egiten duten gazteak egon daitezke; haiek ere bi multzotan bereizten dira: ordenagailua lanerako eta aisiarako erabiltzen dutenak (6. mota) eta ordenagailua soilik lanerako erabiltzen dutenak (7. mota).

6.3.1—1. mota. Ordenagailua erabiltzen duten baina Internetik ez duten ikasle gazteak.

Aztertutako gazteen %13,2 dira. Talde homoginoa da eta gazte guztien artean nahiko ezberdina.

1. motako gazteen artean 6 eta 14 urte bitarteko adingabeak daude (mota honetan %91). Logikoa denez ikasleak dira, gehienak lehen hezkuntzakoak, eta seme-alabak dituzten familietan bizi dira. Ekipamenduak edukitzeari dagokionez, gehienek ikastokian duten ordenagailua (%97,3) baina ez du Internetik (%81,3). Ez dute sakelako telefonorik izaten (%78,9) ezta helbide elektronikorik ere (%99,6). Gainerako ekipamenduei dagokionez beste gazteen antzekoak dira.

Ordenagailua ikasteko erabiltzen dute (mota honetako %100), astero (%87,5) eta ikastokian (%93,1). Ez dute ordenagailuei buruzko ikastarorik egiten. Joko edo aplikazio berezien programak baino ez dituzte erabiltzen.

Azkenik, ez dira sekula Internetera konektatzen.

6.3.2—2. mota. Internet erabiltzen duten ikasle gazteak.

Mota honetan 6 eta 30 urte bitarteko gazteen %10,1 sartzen da. Multzo homoginoa da eta gazte guztien antza gehien dutenak gainera. Multzo honen ezaugarriak azpimarragarriena da ikastokian ordenagailua eta Internetarako sarbidea duten ikasleak baino ez daudela. Batez ere 24 urtera arteko gazteak dira.

Ikastokiko aipatu ekipamenduez gainera etxean ordenagailua izaten dute, beste gazteek bezala (%75ak gutxi gorabehera), baina ez Internetarako konexiorik (%68).

Ikastokian erabiltzen dute ordenagailua (%97,5); eta etxean ere erabiltzen dute, beste gazteek adina edo ia haiek adina (bi kasuetan %30 inguru). Ikasteko erabiltzen dute gehienek, aste-

casos). Lo utilizan con finalidad académica, casi en su totalidad, y con frecuencia semanal (71%). Los programas utilizados son los siguientes: navegador de Internet, procesadores de texto y juegos. También lo utilizan para divertirse (80%).

En cuanto a Internet, el acceso también tiene una finalidad académica (67%), con frecuencia semanal y con mayor probabilidad de acceso en los días laborables.

6.3.3 Tipo 3. Jóvenes que no han utilizado el ordenador en los últimos 3 meses.

Este tipo reúne al 18,8% de los jóvenes de 6 a 30 años. Desde el punto de vista de las características estudiadas, es la clase más homogénea y a la vez la más diferente del resto.

Lo decisivo de esta clase es el no uso del ordenador en los últimos 3 meses y en consecuencia, de Internet. En cuanto a características personales, en todo caso podría hablarse de los jóvenes de más edad (25-30 años), que trabajan y viven en núcleos familiares con o sin hijos.

En cuanto a los equipamientos, normalmente, no disponen de ordenador en el hogar (76,1%) ni en el centro de trabajo (66%). La mayoría ha utilizado el ordenador alguna vez (71%), y algunos nunca (29%). Destaca el hecho de que en una mayor proporción no tengan teléfono en la vivienda (22,4% en la clase, frente al 7,9% en el total).

6.3.4 Tipo 4. Jóvenes estudiantes con Internet en el centro de estudios y en la vivienda.

Este tipo reúne al 20,9% de los jóvenes en estudio. Vuelve a ser una clase homogénea, no muy distinta del global.

Se trata de jóvenes estudiantes hasta 24 años. En cuanto a equipamientos, casi el 100% tiene ordenador y acceso a Internet tanto en el centro de estudios como en el hogar. En el resto de los equipamientos, destaca que el 100% tiene teléfono en el hogar (92% en el total de los jóvenes) y casi la mitad dispone de conexión no convencional de Internet (45,8%), casi la misma proporción de los que disponen televisión no convencional (48,6%). Casi 9 de cada 10 tienen teléfono móvil personal, pero la proporción de los que disponen de cuenta de correo personal no es mucho más elevada a la del total de la población (27,2% y 25,6%, respectivamente).

Respecto al uso del ordenador, predominan tanto el académico como el ocio, casi al 100% en ambos casos. Todos en este grupo utilizan el ordenador en la vivienda y 9 de cada 10 en el centro de estudios. La frecuencia de uso es diaria o semanal, casi al 50%. Se utiliza variedad de programas: navegadores de Internet, procesadores de texto, programas de fotos, de música, copia de CDs, presentaciones y juegos, principalmente.

El uso de Internet también es muy habitual, con finalidad de ocio (76,2%), y con una frecuencia también diaria o semanal al 50%. Se accede desde la vivienda casi en el 100% de los casos, aunque desde el centro de estudios también (casi 3 de cada 4), indistintamente los días laborables o festivos. No se realizan compras por Internet.

ro (%71). Honako programak erabiltzen dituzte: Interneteko nabigatzailea, testu-tratamenduko programak eta jokoak. Dibertitzeko ere erabiltzen dute (%80).

Internet ere ikasteko erabiltzen dute (%67), astero, eta batez ere astegunetan.

6.3.3—3. mota. Azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili ez duten gazteak.

Mota honetan 6 eta 30 urte bitarteko gazteen %18,8 sartzen da. Aztertu diren ezaugarri guztiak kontuan hartuta, mota homogeneoa da eta, era berean, besteengandik ezberdinena.

Multzo honetako gazteek ez dute ordenagailurik erabili azken 3 hilabeteetan eta, ondorioz, Internet ere ez. Ezaugarri pertsonalei dagokienez, gazte nagusienak dira (25-30 urte), lan egiten dute eta seme-alabak dituzten familietan bizi dira.

Ekipamenduei dagokienez, normalean ez dute ordenagailurik etxean (%76,1) ezta lantokian ere (%66). Gehienek ordenagailua noizbait erabili dute (%71) eta batzuek ez dute sekula erabili (%29). Azpimarragarria da gehienek ez dutela telefonorik etxean (%22,4ak, guztiaren %7,9ak ez bezala).

6.3.4—4. mota. Ikastokian eta etxean Internet duten ikasle gazteak.

Aztertutako gazteen %20,9 dira. Hau ere mota homogeneoa da, besteak bezalaxe.

